

Matematikak

Ebaluaketa

1) Xutik pausa itzazu.

a. $45 \times 4 = 180$

b. $250 \times 4 = 1000$

c. $25 \times 4 = 100$

d. $350 \times 2 = 700$

2) Xanek animalia eta lore irudiak baditu. Orotara, 175 irudi ditu. Horietarik 127 animalia irudiak dira. Zonbat lore argazki ditu?

$175 - 127 = 48$

48 lore argazki ditu.

3) Kalkula ezazu nahi duzun metodoa erabiliz.

a. 20tik 36ra ? 16

b. 29tik 35era ? 6

c. $72 - 68 = 4$

d. $72 - 5 = 67$

e. $98 - 9 = 89$

4) Kalkula ezazu nahi duzun metodoa erabiliz.

a. $901 - 320 = 581$

b. $2\ 618 - 645 = 1\ 973$

c. $3\ 053 - 786 = 2\ 267$

d. $4\ 500 - 983 = 3\ 517$

e. $264 - 89 = 175$

Literatura

Harri salda (2. Parlea)

Hara, beraz, gure bi zirtzilak⁽¹⁾ atean joka. Maienak ireki⁽²⁾ zien eta erran :

- Zein gaizki heldu zareten ! Ogi eskasean⁽³⁾ naiz. Auzoari galdegin beharko diot arrats honetako doia.

Manez, bietarik abilena⁽⁴⁾, ohartu zen maienak ez zuela usaiako begitartea⁽⁵⁾, eta erran zion :

- Ez ezazula bururik hauts⁽⁶⁾, gaixo etxeakoandrea. Egun ez dugu lasto pixka bat baizik behar pixkolatzeko.
- Lastoa baizik ez baldin baduzue behar, gure selaurua hartaz beta da. Zoazte gustuan !

Pette harritia zen, ez zekien zer pentsa. Lagunari begiratzen zion zerbait erran nahiz, baina hark isiltzeko keinua⁽⁷⁾ egin zion. Emaztea eskertu zuten eta igatekotan⁽⁸⁾ zirelarik, Manezek erran zuen :

- Bazinuke, bai zerbait eskatzeko⁽⁹⁾. Gure afaria zure su gainean egosarazten⁽¹⁰⁾ ahal duguia ? Gaur harri-salda egingen dugu.
- Harri-salda ?
- Bai, hori da guk, pobreek, ezagutzen dugun errezeta bat.

Hiztegia :

- (1) Zirtzil : canaille
- (2) Ireki : zabaldu
- (3) Eskasean : en manque
- (4) Abil : futé
- (5) Begitartea : regard
- (6) Bururik hauts : se casser la tête

- (7) Keinua : geste
- (8) Igatekotan : en montant
- (9) Eskatu : demander
- (10) Egosi : cuire

Galderak :

1. Zer galdegin dute Manez eta Pettek :

A - Ogia

B - Lasto pixka bat

C - Salda

2. Nun da lastoa :

A - Selauruan

B - Auzoaren etxean

C - Kanpoan

3. Zer behar dute besterik Manez eta Pettek :

A - Hura

B - Ogia

C - Afaria egosi

4. Harri salda noren errezeta da :

A - Maienarena

B - Probreena

C - Xakurrarena